



DSS2016EU-REN “BREAK A LEG!” PROIEKTUAREN BARNEAN KOKATZEN DEN DIZIPLINA ANITZEKO TAILER INKLUSIBOAN PARTE HARTZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

TAILERRAREN DATAK: ekainaren 7tik 17ra, Donostian.

PARTE-HARTZAILEEN PROFILA: desgaitasunen bat duten eta ez duten antzezleak, zuzendariak, dramagileak, dantzariak, musikariak eta teknikariak.

PLAZAK: 20 pertsonetara dago zuzenduta, horietatik 10 desgaitasuna duten artistak izango dira.

IZEN-EMATEA: Interesa duen pertsona orok breakaleg@dss2016.eu helbide elektronikora mezua bidalita izena eman dezake.

IZENA EMATEKO EPEA: apirilaren 26tik maiatzaren 8ra (barne).

1- TESTUINGURUA

Break a leg! proiektuak kultur arloan desgaitasuna duten pertsonen ikustaraztea, inklusioa eta partaidetza aktiboa hobetu nahi du. Gaitasun ezberdinak dituzten artistekin lanketa esperientzia inklusibo baten bitartez, partaideen aniztasun funtzionalean oinarritutako prozesu sortzaile bat garatuko da. Testuinguru honetan, DSS2016EUk ekainaren 7tik 17ra Donostian gauzatuko den laborategi eszeniko bat proposatzen du.

Ikuskizunetan desgaitasunen bat duen pertsonen barneratzeak dakarren aberastasuna ikustarazteko balioko duen esperientzia puntual bat garatzeaz gain, bertako eragileentzako ikasketa eta gizarteratze esperientzia bat izatea bilatuko da, kultur eragile zein kultura eta desgaitasuna lantzen duten eragileak barne hartuko dituen sare bat ehuntzen laguntzen saiatuta.


Proiektuak irauten duen bitartean, diziplina artistikoren bat gaitasun ezberdinak dituzten jendearekin lantzen dituzten taldeen lana erakutsiko da, dagoeneko talde hauek egiten duten lana erakusteko asmoz.

2- DIZIPLINA ANITZEKO TAILER INKLUSIBOAREN PROGRAMA

Datak: Ekainaren 7tik 17ra

20 pertsoneri zuzendutako diziplina anitzeko tailer inklusiboa da, eta horietatik 10 desgaitasunen bat duten artistak izango dira. Gaitasun ezberdinak dituzten artistekin elkarlanean garatuko den esperientzia inklusiboa izango da, zeinean partaideen aniztasun funtzionalean oinarritutako prozesu sortzaile bat garatuko den.





Zer eta nola kontatu dira diziplina anitzeko tailer honen abiapuntua: espazioarekin, soinuarekin eta beste gorputzekin harremanetan giza gorputzaren espresio gaitasunaren eta gaitasun dramatikoaren inguruko jokoa. Zer eta nola kontatu antzerkiaren oinarriko harremanetik: ikuslea eta antzezlearen artekoa. Ezusteko leku batetik lan egingo dugu: gabeziatik, espazioaren mugetatik, soinutik, gorputzetatik... Eta elementu horiek guztiak gurutzatuko ditugu, eta horiekin jolastuko.

Tailerra bi zuzendari artistikoez zuzenduko dute: Mireia Gabilondo (Donostia) y Marco Paiva (Portugal). Lanketa bi astetan banatuko da, eta desgaitasunik gabeko eta desgaitasuna duten 20 artistek osatutako talde batekin lan egingo da. Tailerraren lanketaren emaitza publiko orokor bati zuzendutako erakustaldi batean antzeztua izango da.

Tailerra “33% cultura sin límites”-eko lantaldeak koordinatuko du, Fundación Universiaren bermearekin..

Laneko lehenengo astea:

Data: Ekainak 7, 8, 9, 10 eta 11

Ordutegia: 10:00 – 14:00

Lekua: Dantza Aretoa (Victoria Eugenia Antzokia)

Azalpena: Ikerketa-saioak

Lehenengo astean zehar sorkuntza garaikidetik haratago doazen kontatzeko moduen inguruan ikertuko da. Lengoi berriak bilatuko dira, joera sortzaile berrietara hurbilduko gara... Ikerketa saio hauek beraien praktika modu arriskatu batetik lantzen duten artistengatik zuzenduak izango dira landuko den eremu bakoitzeko: ESPAZIOA – SOINUA – GORPUTZA – NARRATIBA. Ikerketa saioak José Luis Raymond (Espazioa), Isabel Verdini (Gorputza), Iñaki Santos (Soinua) eta Magda Labargak (Narrazioa) zuzenduko dituzte.

Laneko bigarren astea:

Data: Ekainak 13, 14, 15, 16 eta 17

Ordutegia: 10:00 – 14:00

Lekua: Tabakalera (Kutxa Fundazioa)

Azalpena: Piezen sorkuntza

Bigarren astean zehar, tailerreko zuzendariak (Mireia Gabilondo eta Marco Paiva) lanketako lehenengo astean gertatutakoaz bustiko dira tailerraren amaieran erakutsiko diren pieza horiek sortzeko asmoz. Horretarako partaideak bi taldetan banatuko dira, partaideen aniztasuna mantenduta. Talde horietako bakoitza zuzendari artistiko batek zuzendua izango da, amaieran bi pieza ezberdin edukita.

Piezen erakustaldia:

Data: Ekainak 17

Ordutegia: 18:30 – 20:00

Lekua: Club Aretoa (Victoria Eugenia Antzokia)

Azalpena: Erakustaldia



Ikerketa tailerreko lanketaren ondoriozko piezen erakustaldia, tailerreko partaideekin eta erakustaldira gerturatzen direnekin solasaldi batek jarraituta.

Helburuak:

Hemen eta oraina, partaideen sorkuntza eta haiekiko atentzioa lantzeko tresnak eskaintzeko helburua dauka tailerrak. Ikusle eta antzezlearen erlazioan sortzen den lekuaren mugetatik zer kontatu daiteken edo ezin denaren aukera sortzaileak arakatzeko espazioa proposatzen da.

Azken finean, mugaren ideia birpentsatzeko helburua dauka, egin dezakegunaren eta egin ezin dezakegunaren arteko muga, denon artean sorkuntza garaikidea bideratzeko modu ezberdinak aurkitzeko.

3-ESKAEREN AURKEZPENA ETA EPEA

Beharrezko dokumentazioa:

Deialdian parte hartzeko, eskatzaileek ondoren adierazten den dokumentazioa bidali beharko dute emailaz breakaleg@dss2016.eu helbide elektronikora, gaian: 'Break a leg' adierazita:

- Eguneratutako CV artistikoa bidali
- Ikastaroa gauzatzeko motibazio gutuna idatzi eta bidali

Desgaitasunen bat duten artisten parte hartzerako, ezinbestekoa izango da %33ko desgaitasunaren ziurtagiria izatea gutxienez. Horregatik, honako hau ere bidali beharko dute:

- Desgaitasun ziurtagiriaren kopia

Izen-emate epea: 2016ko maiatzaren 8a (barne)

Proiektuko arduradunak eskatzailearekin harremanetan jar litezke bidalitako informazioaren inguruko zehaztapenak eskatzeko.

4- BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Balorazio-irizpideak ondorengoak izango dira:

- Eskatzailearen ibilbide artistikoa.
- Tailerrean parte hartzeko motibazioa.
- Esperientziaren transferigarritasuna.



5-AUKERAKETA PROZEDURA

Epaimahai batek eskatzaileen balorazio eta aukeraketa egingo du aurreko puntuan ezarritako irizpideen arabera. Antzeko perfilak daudenean, zainduko da aukeratzen den taldearen aniztasuna adina, genero, diziplina, etab.-en arabera.

Guztira 20 pertsona aukeratuko dira, eta horietatik 10 desgaitasun bat duten artistak izango dira.

Epaimahaia Donostia 2016ko bi pertsonen eta “33% Cultura sin límites” elkarteko bi kidek osatuko dute.

Deialdiaren ebazpena pertsonalki jakinaraziko da eskatzaile bakoitzari eskaerak bidaltzeko epea amaitzen denetik astebeteko epean.

6-IZEN-EMATE PREZIOA ETA GASTUAK

Izen emate prezioa: Doan

Laborategian parte hartzeko aukeratuak diren 20 pertsona horiek ez dute inolako matrikula gasturik ordaindu beharko.

Desplazamenduak eta dietak

Laborategian parte hartzeak ekar litzakeen gastuak murriztu edo ekiditeko helburuarekin, antolakuntzak bere gain har ditzazke hala eskatzen duten parte hartzaileen desplazamendu- eta dieta-gastuak ondorengo irizpideen arabera:

Desplazamendua: Antolakuntzak desplazamendu kontzeptupeko gastuak ordaindu ditza, edo horien parte bat, laborategia gauzatuko deneko lekura (Victoria Eugenia Antzokia edo Tabakalera, Donostian) desplazatzeagatik sortutako gastuak. Horretarako, partaideek laborategiaren amaieran ticketak edo gastu ziurtagiriak entregatu beharko dituzte, antolakuntzarekin aldez aurretik adostuta bere gain hartuko dituen gastuen kopurua.

Dietak: Antolakuntzak bere gain hartuko ditu hala eskatzen duten partaideen laborategi egunetako bazkariak (eguerdian), aldez aurretik antolakuntzarekin adostu eta koordinatu ondoren.


7-AUKERATUTAKO PERTSONEN BETEBEHARRAK

Aukeratutako pertsonen oinarri hauetan zehazten diren baldintza espezifikoak onartzen direla jasotzen duen dokumentua sinatu beharko dute, zehaztutako lan-saio guztietan eta erakustaldiko entsegu zein saioan parte hartzeko konpromisoa hartuta.

8-JABETZA INTELEKTUALA

DSS2016EU Fundazioaren helburu estrategikoa, jabetza intelektualaren arloan, «jabari publiko, kode ireki eta ezagutarako sarbide libreko kultura sustatzea» da. Hori dela eta, eta helburuok betetzeko, parte hartzaileek DSS2016EU Fundazioari lagatzen dizkio, eskusiban, ez denbora ez lurralde mailako mugarik gabe, eta hirugarreni lagatzeko eskumenarekin, deialdi/tailler honen ondorioz sortzen diren obra, sorkuntza-lan, material eta prestazioen –erreproduktzioa, banaketa, jendaurreko komunikazioa, transformazioa eta merkaturatzea– jabetza intelektualaren eskubideak.

Behin proiektuaren gauzatzearen eskubideak (hala nola erreproduktziorako, banaketarako, komunikazio publikorako, transformaziorako eta merkataritza-ustiapenerako eskubideak) eskuratu dituenean, DSS2016EU FUNDAZIOAK CC BY SA 3.0 ES lizentziapean ezarriko ditu (Aitorpena-Berdin Partekatuta).



Lizentzia horren arabera, egiletza behar bezala aitortu behar da, lizentziarako esteka bat eskura jarri, eta aldaketarik egin ote den adierazi. Deribatutako lanak jatorrizkoaren lizentzia bera izan behar du.

9-OINARRIAK INTERPRETATZEA ETA ONARTZEA

Deialdi honetan parte hartzeak berekin dakar dokumentu honetan ezarritako oinarriak eta baldintzak onartzea. Hala bada, DSS2016EUren taldearen ebazpena independentea eta apelaezina izango da.